

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Oposizioak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3154

1021/2026 EBAZPENA, ekainaren 26koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Langileen eta Talentuaren zuzendariarena, zeinaren bidez deialdi publikoa egiten baita Jardunaldi eta Kongresuetako Zerbitzu Korporatiboko burua-2 lanpostua izendapen askez hornitzeko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian, Langileen eta Talentuaren Zuzendaritzan, Garapeneko, Ezagutzako eta Hizkuntza Plangintzako Zuzendariordetzan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Langileen eta Talentuaren Zuzendaritzako Ezagutzako eta Hizkuntza Plangintzako Zuzendariordetzan, Jardunaldi eta Kongresuetako Zerbitzu Korporatiboko burua-2 lanpostua hutsik dago. Hori dela-eta, bat etorritik Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan xedatutakoarekin, Langileen eta Talentuaren Zuzendaritza honek erabaki du deialdi publikoa iragartzea aipatutako lanpostua izendapen askez hornitzeko, oinarri hauen arabera

OINARRIAK

Lehenengoa.— Lanpostuaren atxikipena.

Atxikipena: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusia, Garapeneko, Ezagutzako eta Hizkuntza Plangintzako Zuzendariordetza, Langileen eta Talentuaren Zuzendaritza, Jardunaldi eta Kongresuen Zerbitzu Korporatiboa (Vitoria-Gasteiz).

Lanaldia: zatitua.

Hizkuntza-eskakizuna: 3. HE (derrigortasun-data: 2023-12-03).

Bigarrena.— Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

a) Estatutupeko, funtzionario edo langile lan-kontratadun finkoa izatea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko edozein zerbitzu-erakundetan eta lanpostua jabetzan edukitzea A2 lanbide-taldean.

b) Gutxienez 4 urteko lan-esperientzia izatea administrazio publikoan A2 lanbide-taldean.

c) 3. Hizkuntza-eskakizuna.

d) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuko eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Euskara Planeko gainerako baldintzak.

Hirugarrena.— Lanpostuari lotutako eginkizunak.

Kongresu, jardunaldi eta ekitaldi instituzionalen urteko plana diseinatu, planifikatu eta gauzatzeari, helburu estrategikoekin lerrotatuz eta sektoreko topaketetan parte hartzea koordinatuz.

Jardunaldi teknikoak eta zientifikoak bultzatzea, bai eta lanbide-trukerako eta jardunbide egokietarako guneak ere.

Ekitaldiak osoki antolatzea: inskripzioak, akreditazioak eta ziurtagiriak kudeatzea; hizlariak, moderatzaileak eta parte-hartzaileak koordinatzea; erakunde laguntzaileekin, elkarte zientifikoekin eta agintariekin harremana izatea.

Logistika planifikatzea eta gainbegiratzea: egoitzak eta zerbitzuak hautatzea eta kontratatzea, hornitzaileak, joan-etorriak, ostatua eta jatetxeak koordinatzea, irisgarritasun- eta jasangarritasun-irizpideak bermatuz.

Ekitaldien jarraipena eta ebaluazioa egitea, parte-hartzea, inpaktua eta gogobetetasuna aztertuz, txostenak eta memoriak eginez eta etengabeko hobekuntza bultzatuz.

Zerbitzuaren aurrekontua kudeatzea, bai eta kontratazio-, hitzarmen-, babesletza- eta lankidetz-espeditenteak ere.

Laugarrena.– Baloratuko diren merezimenduak.

Euskal osasun-sistemako kongresu, jardunaldi, topaketa profesional eta ekitaldi instituzional sanitarioak profesional sanitarioekin antolatzen, koordinatzen eta zuzentzen esperientzia izatea.

Esperientzia proiektuen plangintzan eta kudeaketan.

Eskarmentua lan-taldeko koordinazioan.

Esperientzia prestakuntza-jardueren kudeaketan edo ezagutzaren transferentzian.

Lanpostu hau betetzeko interesgarria izan daitekeen eta balioa erants dezakeen edozein merezimendu aurkeztu ahalko da.

Bosgarrena.– Euskararen ezagutza.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan Euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak eta berau garatzen duten arauak xedatutakoaren arabera egingo da balorazioa.

Seigarrena.– Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Langileen eta Talentuaren Zuzendaritzara bidali beharko dituzte eskabideak. Horretarako 10 egun balioduneko epea izango dute, ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako eran aurkeztu ahalko dira eskabideak.

Interesdunek Zuzendaritza Nagusiko Langileen eta Talentuaren Zuzendaritzara bidali beharko dute eskabidea (Araba kalea 45, 01006 Vitoria-Gasteiz), beren datu pertsonal guztiekin eta dokumentatutako curriculum vitaearekin batera.

Dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala bada, gorkio, langile lan-kontratudun finkoa dela egiaztatzen duen agiriarena.
- Baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten dokumentu guztien fotokopia konpultsatua.

– Merezimendu baloragarriak egiaztatzen dituzten dokumentu guztien fotokopia konpultsatua.

CVaren aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala baliozkotuta dauden alderdiak ez dira ziurtatu behar izango aurreko paragrafoan ageri den moduan; hala ere, eskatzaileak horren berri eman behar du eskaeran.

Zazpigarrena.– Balorazio Batzordea.

Balorazio Batzordea osatuko da, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21. artikulua ezarritakoaren arabera; hortaz, horren burua Hautaketako eta Horniketako zuzendariordea edo haren ordezkoa izango da eta kide hauek izango ditu: Garapeneko, Ezagutzako eta Hizkuntza Plangintzako zuzendariordea eta Prestakuntza Zerbitzuko burua (azken horrek idazkari gisa jardungo du eta hitza eta botoa izango ditu).

Batzordeak, eskabideak baloratu ondoren, eginbide osagarriak gauzatzea erabaki dezake, eta izangaiei horien berri emango die.

Izangaiei balorazioa egindakoan, eta berau kontuan hartuta, dagokion izendapena egiteko proposamena aurkeztuko da. Lanpostua hutsik uztea proposa dezake epaimahaiak, betiere aurrez txosten arrazoitua eginez, baldin eta izangaiek betetzen ez badituzte bete beharreko baldintzak.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan, aurkeztutako izangaiak eta gauzatu-tako eginbide osagarriak (halakorik balego) zerrendatuko dira, eta emango dira lanpostua eurretako bati esleitzeko edo deialdia hutsik uzteko kontuan hartutako arrazoiak.

Zortzigarrena.– Hautaketa-prozedura.

Ezin izango dira baloratu, inolaz ere, deialdia EHAAn argitaratzen den egunean eskuratu gabe dauden merezimenduak, ez eta eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik behar bezala alegatu eta egiaztatu ez direnak ere.

Bederatzigarrena.– Prozedurari amaiera ematen dion ebazpena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Langileen eta Talentuaren zuzendariaren ebazpenaren bidez amaituko da honen bidez hasitako prozedura (lanpostua esleitzea edo hutsik uztea). Ebazpen horrek EHAAn argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, ebazpen horretan besterik xedatu ezean.

Hamargarrena.– Ebazpen honen aurkako errekursoak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 26a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Langileen eta Talentuaren zuzendaria,
JOSUNE RETEGI ORMAZABAL.